



ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:
SAILKIDEEN OMENALDIA
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI
(1947-2008)

MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ (ARG.)

eman ta zabal ezazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:
SAILKIDEEN OMENALDIA
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI
(1947-2008)

Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.)



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

2015
Bilbo

CIP. Biblioteca Universitaria

Eridenen du zerzaz kontenta : sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008) / Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.) - Bilbo : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2015. – 668 p. ; 24 cm.

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-92-2015. – ISBN: 978-84-9082-092-6

1. Knörr, Henrike (1947-2008). 2. Euskara (Lengua). 3. Literatura vasca. I. Ezeizabarrena Segurola, María José, coed. lit. II. Gómez, Ricardo, coed. lit.

809.169

891.69.09

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da:

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación:

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- «Aproximación al estudio de la competencia léxica y gramatical de los bilingües: metodologías experimentales y no experimentales» (Espainiako MINECO, FFI2012-37884-C03-02).
- «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (Espainiako MINECO, FFI2012-37696).
- «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-698-13).
- «Hizkuntzaren jabekuntza, irakaskuntza eta erabilerak. Euskara, elebitasuna eta eleaniztasuna» (HIJE) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-676-13).
- «Adquisición de lenguas, literatura y traducción en la formación plurilingüe» (UPV/EHU, UFI11/06).
- «Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara» (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

UPV/EHUko Euskararen arloko Errektoreordetzak lagundutako argitalpena

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

© Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg. / eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

ISBN: 978-84-9082-092-6

Lege gordailua / Depósito legal: BI-92-2015

Aurkibidea

Aurkezpena	
MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ	XI
Hitzaurrea	
IÑAKI GOIRIZELAIA, UPV/EHUko errektorea	XV
Henrike Knörr eta UPV/EHUko Letren Fakultatea	
IÑAKI BAZÁN, Letren Fakultateko dekanoa.	XVII
Henrike Knörr (1947-2008). Bibliografia	
GARIKOITZ KNÖRR (Universitat de València)	XXI
Diskurtso-markatzaile berri batzuk: <i>beste hitz batzuetan (esanda/esateko)</i> , <i>beste hitzetan (esanda/esateko)</i>	
XABIER ALBERDI LARIZGOITIA (UPV/EHU)	1
<i>Eguna</i> egunkariko idazleak (1937)	
XABIER ALTZIBAR ARETXABAETA (UPV/EHU)	27
Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)	
BORJA ARIZTIMUÑO LÓPEZ (UPV/EHU)	49
Euskararen azentuera: hizkera tradizioaletatik euskara estandarera	
GOTZON AURREKOETXEA, IÑAKI GAMINDE, LEIRE GANDARIAS & AITOR IGLESIAS (UPV/EHU)	71
<i>Work in conflict</i> : (meta)literatura y escritura en novelas que abordan el conflicto vasco	
MIKEL AYERBE SUDUPE (UPV/EHU)	97
<i>Hain zuzen (ere)</i> diskurtso-markatzailea: lokailu ala operadore?	
MIREN AZKARATE (UPV/EHU)	113

Erreferentziakidetasun-sareen etiketaze-metodologia EPEC Corpusen tratamendu konputazionalari begira KLARA CEBERIO (UPV/EHU), ITZIAR ADURIZ (Universitat de Barcelona), ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA (UPV/EHU) & INES M. GARCIA-AZKOAGA (UPV/EHU)	129
Zubereraren /y/: bere sorrera eta hedapenaren inguruan ANDER EGURTZEGI (UPV/EHU)	149
New media – new challenges for language policy: Rethinking the role of public media in language revitalization AGURTZANE ELORDUI (UPV/EHU)	163
EPEC-RolSem: Ingelesezko <i>PropBank-VerbNet</i> eredura etiketatutako euskarazko corpusa. Erabakiak, egokitzapenak eta bereizgarriak AINARA ESTARRONA, IZASKUN ALDEZABAL, ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA & MARÍA JESÚS ARANZABE URRUZOLA (UPV/EHU) .	179
<i>Kode alternantzia</i> elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA (UPV/EHU)	207
Narratze-trebetasunen garapena. Ipuin bera eta ume bera hiru adin ezberdinetan INES M. GARCIA-AZKOAGA, ITZIAR IDIAZABAL & LUIS M. LARRINGAN (UPV/EHU)	227
Birformulatzailerik zuzentzaileak testu idatzietan JULIO GARCIA GARCIA DE LOS SALMONES & MIKEL IRUSKIETA (UPV/EHU)	245
Partizipioa erlatiboa zenekoa: partizipio kategoria XIX. mendeko zenbait euskalariren lanetan RICARDO GÓMEZ LÓPEZ (UPV/EHU)	267
Sobre una estampilla ibérica de Ruscino (Castell Rosselló, Perpignan) JOAQUÍN GORROCHATAGUI (UPV/EHU)	281
Galderen eta erlatibozkoen ulermena haur euskaldunengan M. JUNCAL GUTIERREZ-MANGADO (UPV/EHU)	289
Euskarazko galdera erdibituak: analisi bitar baterantz ARITZ IRURTZUN (CNRS-IKER & HiTT)	307
Euskarazko silaba egiturak zen.ba.tzen OROITZ JAUREGI (UPV/EHU)	325

Aitzol Aramaioren <i>Terminal</i> laburmetraia. Literatura eta zinema JON KORTAZAR (UPV/EHU)	337
Hiru hasperen haboro JOSEBA A. LAKARRA (UPV/EHU)	349
Zaraitzuko oikonimia JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE (NUP)	379
Ehulku eta Jagonet kontsulta-zerbitzuak aztergai JESUS MARI MAKAZAGA EIZAGIRRE (UPV/EHU)	401
Gaztelania H ₁ eta H ₂ -ren garapena 5 eta 8 urte artean: ipuinetako aditz kohesioa aztergai IBON MANTEROLA GARATE (UPV/EHU)	419
Irudikapen fonologikoa gaztelania-euskara afasia elebidunean AMAIA MUNARRIZ (UPV/EHU)	437
<i>Gauza ziurra</i> eta <i>gezur hutsa</i> : euskal izenondo adberbialen kolokazioak JUAN CARLOS ODRIUZOLA PEREIRA (UPV/EHU)	457
Sites of memory in the Narrative of Bernardo Atxaga MARI JOSE OLAZIREGI (UPV/EHU)	475
Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan MIREN LOURDES OÑEDERRA (UPV/EHU)	491
<i>Awkward birds</i> . Cosmopolitanism and globalisation issues in mi- norised cultural communities LOURDES OTAEGI IMAZ (UPV/EHU)	499
Oloroeko diozesako euskal liburuak eta zuberera idatzia MANUEL PADILLA MOYANO (UPV/EHU)	519
Koherentzia diskurtsiboa euskal baladen exordioetan PATXI SALABERRI MUÑOA (UPV/EHU)	537
Hizkuntza corpusak eta euskara PELLO SALABURU (UPV/EHU)	559
Landucciren hiztegien ordena eta honen eragina euskarazko hiztegian BLANCA URGELL (UPV/EHU)	577
Henrike Knörr y su relación con Turquía CARMEN URIARTE (Turkiaren ohorezko kontsula Euskal Herrian) . .	603

Zenbait ohar <i>bata bestea</i> anafora elkarkariaren inguruan ARITZ URRUTIA, BEÑAT GOITIA & XABIER ARTIAGOITIA (UPV/ EHU)	617
Arabako euskararen gaineko ikerketak KOLDO ZUAZO (UPV/EHU)	643
Tabula Gratulatoria	667

Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan

Miren Lourdes Oñederra

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU
ml.oinederra@ehu.eus

1. Aldez aurrekoak

Henrike Knörr ezagutu genuenok badakigu zein atsegin zitzaien Henrike-ri korridorean topo egin eta honetaz edo hartaz aritzea. Henrikerena jakin-min unibertsa deitzen den mota horretakoa zen. Gauza asko interesatzen zitzaizkion biziki eta gaiei nondik heldu asko axola zitzaien kontua zen. Nork-zer-zein ikuspuntutatik eta zergatik, hitz-aspertu luzeetarako haria izan zitekeen Henrikerekin, bai alderdi akademikoan, bai bizitzaren beste zenbait alorretan ere. Gaur nik hona bere omenez dakarkidana eskola bat da, gradu aurreko eskola baterako egitasmoa litekeena, Henrike gurekin balego, eztabaidatuko lukeena ziurrenik, niri behintzat oso erakargarria eta iradokitzailea gertatzen zaidan gaia: hizkuntz tipoa eta hizketa-erritmoen arteko korapiloak, batzuen eta besteen arteko erlazioaren balizko logikaren nondik-norakoak. Uste dut Henrikeren gustuko gaia litzatekeela, kontuan hartuta gainera musika zenbat erabiltzen den arrazoibideetan barrena.¹

Ez dut asmorik arazoa goitik behera xahutzeko, ezta gutxiago ere. Besterik gabe, nahi nituzke oinarritzko kontzeptu batzuk eta beren arteko erlazioak azaldu, modurik didaktikoenari legokiokkeen mailarik apalenean, ez haatik sinpleenean. Izan ere, konplexua dena ezin baita modu sinplean azaldu ez bada iruzur egin nahi.²

Azalpenak Fonologia Naturalaren teoriaren moldean kokatu behar dira, hain zuzen ere teoria horren sortzaileak, David Stampek, eta Patricia Doneganek proposatu tipologia holistikoan. Beren ikuspuntutik hizkuntz tipoen arteko desberdintasunaren funtsa prosodikoa da, hizkuntzaren osagai fonologi-

¹ Eskerrik beroenak aurtengo fonologia eta morfologiazko ikastaroan gai hau nirekin sakondu duten Euskal Ikasketetako ikasleei.

² Cf. Spring *et alii* (2000) *'baby' theoretical linguistics* deitzen dutena.

koaren barnean alor ez-segmentalekoa alegia. Ondo ulertzen da tipologiaren ikuspegi hau David Stampek hasitako Fonologia Naturalaren emaitza izatea. Teoria horren eduki nagusiak 60. hamarkadaren azken aldera plazaratzen hasi ziren (Stampe 1968, 1969) eta 1973an Chicagoko Unibertsitatean aurkeztu tesian sakonago garatu.³ Tesiaren 1979ko argitalpenerako gehitutako oharra (*Afterthoughts*) garrantzizko pausoak dira teoriaren garapen eta argitzean. Baina urte horretan berorretan, 1979an, Patricia Doneganekin argitaratu zuen artikuluan agertzen zaizkigu, nolabait munduari aurkeztuta, teoriaren aldarri nagusiak eta hor (Donegan & Stampe 1979: 142) esaten zaigu hitzez hitz prosodia dela ahoskeraren alderdirik garrantzitsuena:

Prosodic processes map words, phrases, and sentences onto prosodic structures, rudimentary patterns of rhythm and intonation. Insofar as syllabicity, stress, length, tone, and phrasing are not given in the linguistic matter, they are determined by the prosodic mapping which may most easily be described as an operation in real-time speech processing of which setting sentences to verse or music are special cases [...]. The application of prosodic processes is the most important factor in the living phonological pattern of a language and its long range phonological 'drift'; the selection of segmental processes is largely determined, even in childhood, by the way segmental representations are mapped onto prosodic structure in speech.

Ez da harritzekoa, halako teoria batean, hizkuntz tipoen bizkar-hezurra bilatzen jarrita, prosodian ikustea oina eta funtsa.

Denbora mugak aintzat hartuta, baina ez horregatik bakarrik, lan hau egiteko Donegan (1993) izango dut oinarri nagusi, une zenbaitetan beste lan batzuekin osatuko badut ere. Donegan eta Stamperen tipologia holistikoaren inguruko argitalpenen artean, hau da laburrena (cf. Donegan & Stampe 1983, 2002, 2004). Laburrena diot, hemen erabiliko dudan zati orokorrak hamar orrialde dituelako doi-doi, hortik aurrerakoak hizkuntzen bokal paradigmaren azterketan egindako teoriaren aplikazioa baitira. Idazten ari naizen honetarako, gainera, orrialde horietan agertzen direnen artean pasarte zehatz batzuk aukeratu ditut, atera nahi ditudalako nire ustez kontzeptu inportanteenak direnak eta, batez ere, kontzeptu horien arteko erlazioei buruz esaten zaiguna. Hor ikusten dut nik proposatzen den tipologiaren ekarpenik handiena: gauzen deskripzioa baino aurrerago joateko saioa, hizkuntzen nondik-norakoak ulertzen hasteko egin beharreko gogoeten adibide eredugarria. Era miresgarrian sintetizatzen du hori guztia Patricia Doneganek orrialde gutxi batzuetan.

³ Tesiaren eskuizkribua asko zabaldu omen zen 1972an "How I spent my Summer vacation" izenburupean.

Helburua ez da, beraz, artikularen hustuketa edo teoriaren aurkezpen osoa egitea, ezta ere agertzen diren proposamen teorikoen aplikazioa. Argudioen sarea nahi nuke erretratatu, aurkezten zaizkigun kausa-ondorio loturak plazaratu beren konplexutasun guztiarekin, eskura izan ditzan hizkuntzen analisisan dabilenak lehen une batean. Gero, noski, teoria erabili nahi badu, zuzenean joan beharko du Doneganen testura edo Donegan eta Stamperen gainerakoetara. Ondoko ataletan, kontzeptu garrantzitsuenen inguruan harilkatuko ditut ahal bezain ongi ideiak, Doneganen lanaren zatikako euskaratzea baino askoz gehiago ez dena, aipatu berri dudan lehen hurbiltze hori inori erraz diezaion itxaropenean.

2. Mora

Grekozko termino prosodiko hori azken aldian oso boladan ibili bada ere, tradizio luzekoa da metrika eta hizkuntzalaritzan. Haatik, ez da beti esanahia garbi azaltzen eta eztabaida luzeak ere sortu dira bere inguruan. Doneganek definizio zehatz eta sustantziazkoa (ez formala alegia) ematen digu artikularen hirugarren atalaren hasieran (Donegan 1993: 7):

The precise coordination of gestures required in speaking and other intentional action depends on a neural metronome that emits a flexible but regular pattern in real time, onto which we map intended words and phrases for articulation. The shortest unit in this inner rhythmic pattern that is relevant in speech, verse, and song is the time needed to pronounce a short syllable, which I will refer to by the Greek prosodic term *mora*.

3. Beat

Doneganek *beat* terminoa hartzen du musikatik, adierazteko hitz solte bat ahoskatzeko behar den gutxieneko denbora. Hitz hori silaba labur batek osatzen badu, silaba hori hitz barreneko silaba laburrak baino luzeago gertatzen da: ez du mora bakarria irauten gure oharren barreneko denbora-neurgailuan, bi baizik. “As I shall use the term, a beat consists of two moras”, dio Doneganek, moraren definiziotik lerro gutxi batzuk beherago.

Beat baten barruan bi mora daudela esateak bide ematen du silaba luze eta laburrak bereizten dituzten hizkuntzen (hizkuntza moraikeen) eta beste zenbaiten poesi metrikari aurkitzen diren baliokidetzak ulertzeko. Halakoe-tan silaba labur bi silaba luze baten baliokidetzat hartzen baitira. Gainera, beat bat mora biz osatutzat jotzeak balio digu beste erregulartasun baten berri emateko.

Hainbatik hainbatean,⁴ beat bateko lehen mora erlatiboki indartsua da; bigarrena, berriz, ahula. Horrek ez du esan nahi hitz ianbikoak (ahul-indartsu hurrenkerakoak alegia) gerta ez daitezkeenik, baina horietan bigarren zatia (bigarren silaba) izan ohi da beataren hasieran kokatzen dena. Lehen zatia anakrustikoa (orain *estrametrikala* deitzen dutena izen klasikoaz adierazirik) izango da halakoetan, ez du pisurik izango alegia: *in'stead*.

Beste lan batzuetan Doneganek eta Stampek, hizkuntzalari zenbaitek bezala, *foot* edo *oin* termino metrikoa erabili dute, hemen *beat* izenez jasotzen dena adierazteko. Une batetik aurrera, ordea, musika-terminoaren alde egiten dute, unitatearen nolakotasuna berez musikaltzat jotzen dutelako: “The incompatible use of the term *foot* in verse metrics and musicology (Cooper and Meyer 1960) makes us reluctant to follow Abercrombie (1964a) and many others in using *foot* to refer to beats” (Donegan & Stampe 2004: 30).

4. Neurria (*measure*) eta neurri luzeago edo konpasa

Bata bestearen ondoan doazen bi beatek neurri bat osatzen dute (*'ope'rator*), lehen beata bigarrena baino indartsuago izango delarik, morek beataren barruan duten indar erlazioaren hurrenkera errepikatzen delarik horrela hizketaren egitura erritmikoaren goragoko mailan.

Bi neurrik neurri luzeago bat osatzen dute (*'ele'vator-'ope'rator*), Doneganek musikako konpas arruntarekin berdintzen duena. Agian, dio, ingelesa bezalako hizkuntzetan neurri hau da “an upper limit of purely rhythmic perception” (Donegan 1993: 7). Euskarazko bi silabako hitz bik osatutako konposatua litzateke neurri luzeago edo konpas bat, neurri soilera igaroko litzatekeena hitz elkarketan oparo izan diren bokal erorketak medio, esaterako: *mihi-luze* > *miluz* (Michelena [1977] 2011: 21.4 atala, Oñederra 2013).

5. Hizkuntz tipoak eta hitzen luze-laburra

Donegan eta Stamperen tipologiari buruzko lehen argitalpenean (Donegan & Stampe 1983) esaten da hitz bat beat batean txertatzeko joera joera uni-bertsala dela, baina joera hori ezin dela ondo gauzatu hitz luzeak edo luzera aldakorrekoak dituzten hizkuntzetan. Begibistakoa dirudien baieztapen hori zein modu argigarrian garatzen duen Doneganek (1993: 9-11) ondoko le-roetan nahi nuke laburtu.

⁴ Ez jakinaren zuhurtasun gehiegizkoak eragina bide da hemen *hainbatik hainbatean* hori. Ikus, honetaz aurrera egiteko, Donegan & Stamperen hogeita bigarren oin-oharra (2004: 31): “The universal falling character of beats and measures is reflected in temporal compensation not only in speech but also in music” eta ondorengo lerroak.

Hasteko, gogorarazi digu nola erritmikoki axola duena silabaren errima den, elementu silabagiletik azkenera artekoa. Horregatik bokalaren aurreko kontsonanteek ez dute balio erritmikorik. Era berean, hitzean erritmikoki axola duen zatia azentutik azkenera artekoa da. Zati hori beat batean sartzeko modukoa izateko, ezin da bi mora edo bi silaba labur baino (askoz) luzeagoa izan. Garbi dago ingelesez erraz bete daitekeela baldintza hori hitz asko eta askorekin. Doneganek lan honetan honako adibide hauek eskaintzen dizkigu: *stead*, silaba bakarrekoa; *instead*, bi silabakoa; *steadily*, bi moratan sar daitezkeen hiru silaba labur (“squeezed into two moras, exactly as a triplet of notes is performed in the time of two in music”, Donegan 1993: 9); eta baita *instead* ere, lehen *in-* silaba anakrusiaren bidez ezkututzen dena kontaketa erritmikotik.

Gauzak oso bestelakoak dira azentua hasieran duten hizkuntzetan, batik bat hitzak atzizki kopuru aldakorren bidez luzatzen dituzten hizkuntza eransle edo aglutinatzaileetan. Hizkuntza horietan ezinezkoa gertatzen da erritmoa beatak osatzen dituzten hitzetan oinarritzea, hitz asko luzeegi gertatzen direlako horretarako eta hitzen luzerak desberdinegiak suerta daitezkeelako erregularitasun erritmikoa (unitateen isokronia) antolatzeko orduan. Horregatik, halako hizkuntzetan, erritmoa silaben arabera da, denbora puska ustez berdinak silabak dira. Isokronia, bestela esan, silabetan oinarritzen da edo “more precisely, on groupings of syllables into beats, since even the canonical examples of syllable-timed languages invariably show binary groupings (an alternating accent, or, conversely, an alternating vulnerability to weakening by devoicing or reduction or deletion)” (Donegan 1993: 10).

Hizkuntza eransleak, lanaren beste pasarte batean gogora ekarri zaigun bezala, buru-azken (*left-branching*) izan ohi dira sintaxiaren aldetik, atzizki jartzaile morfologiarenetik. Euskararen ikerketan dabilenak berehala erabakiko du, aipatu ezaugarriei begira behintzat, halako hizkuntz tipoaren aurrean gaudela.

6. Buru-azkentasunaz

Azkenik eta aurrekoaren osagarri, euskararen ikerlanaren esparruan gaudeenez, nahi nituzke ekarri hizkuntza aglutinatzaile buru-azkenei buruz Donegan eta Stamperen tipologian aurkitzen diren bi gogoeta-bide oparo. Ondoko ideiak, beste lanetan barreiaturik aurkitzen dira, baina Donegan & Stampe (1996) aurkezpenetik ekarriak dira ondoko lerroetan jasoak.

Sapir eta Jespersen bezalako izen handiko hizkuntzalariek aldarrikatu omen dute hizkuntza buru-azketan aurkitzen den flexioa erredundantea dela, obsesio gramatikal deitu omen zioten. Halaz ere, Donegan eta Stamperen ikerlanen ondorio da Indiako munda hizkuntza buru-azkenak buru-lehen

izandako jatorritik datozela mon-khmer hizkuntzak bezala.⁵ Hartara, munda hizkuntzetako berrikuntza izan da buru-azkentasunerako aldaketa hori. Ez gara hemen horren alde ematen dituzten argudioetan sartuko, gure gaurko helburuetatik desbideratu egingo gintuzkeelako eta orain ez dugun denbora beharko genukeelako. Bai nahi nuke azpimarratu, ordea, aldaketarako lehen bultzada prosodian jarten dutela Donegan eta Stampek. Gutxitan agertzen da hori ere oinarri hartu dugun lan honetan bezain zehatz: “the complete reversal of structure that occurred in Munda began with a single change from rising to falling accent” (Donegan 1993: 2).

Egia bada buru-azkentasunak kalte egiten diola hiztunen epe laburreko oroimenari, alegia buru-lehentasuna hobea dela esaldien informazioaren bat-bateko kudeaketarako, nola ulertu halako egiturak dituzten hizkuntzen irautea (euskara, esaterako)? Areago, nola ulertu halakoak sortzea, burulehentasunetik buru-azkentasunera aldatzea hizkuntzak beren historian zehar (munda hizkuntzak, esaterako)? Gabiltzan teoriarik harrigarri gertatuko ez zaigun erantzuna prosodiatik datorkigu. Egitura buru-azkenetan esaldiak, sintaktikoki hartuta, bat datoz esaldi erritmikoekin, unitate erritmikoaren hasierarekin bat baitator esaldiaren hasiera eta unitate erritmikoa bukatzean bukatzen da esaldi sintaktikoa ere.⁶ Beraz, sintaxiaren aldetik burua azkenetan etortzeak aldrebesten duena, edukiaren prozesatzearen aldetik, esaldi horien ontasun prosodikoak berdintzen du nonbait. Ezin eutsi diot hemen arras aieruz adierazi behar dudana gogoeta bati: uste dut oso aintzat hartzekoa dela unitate sintaktikoen eta errimikoen arteko lotura hori euskal azentu eta doinuaz hausnartzeko orduan. Euskaraz oso perpaus luzeak gerta daitezke. Oso litekeena da horietan antolaketa prosodiko nagusia sintagmakakoa izatea, ez perpauskakoa, are gutxiago, noski, hizkakoa.

Halako hizkuntzetan aurkitzen den flexio aberatsa ere, esaldi azkeneko burua iritsi arte, ezkutuan dagoen informazio faltaren ordaintzat har daiteke. Aditza zein izango den ez badakigu ere, esaldiaren gainerako osagaien arteko erlazioen berri ematen digute kasu atzizkiek. Horregatik, diote Donegan eta Stampek, ez da egoki flexio sistemak iraganeko sistemaren iraute egoskortzat hartzea. Alderantziz, hitz eta morfemen hurrenkera erritmo baldintza

⁵ Joseba Lakarrari eskerrak gure artean hedatu den munda eta mon-khmer hizkuntz familietan oinarritutako tipologiaz aritzeko orduan, ez da ahaztu behar tipo aurkakotasun hori aztertu zutenek diotena bi familia horietako bakoitzaren ezaugarriak zerrendatzen dituzten taulak. Taulak ez direla aurkibide moduko bat baizik, “not a tabulation of invariable associations in these languages nor in languages of the world” (Donegan & Stampe 2004: 28).

⁶ Nahita ari naiz saihesten *esaldi* terminoaren azpian egon daitezkeen *perpaus* edo *sintagma*-ren arteko aukera. Baina ikus paragrafo azkeneko lerroak.

jakin batzuetara egokitu duen gramatikaren nolakotasuna aintzat hartuta, oso ondo ulertzen diren hautu koherenteak dira.

Kasu afixuak atzizki izatea ere bide beretik uler daiteke. Horretarako bi arrazoi-ondorio kate gertatu behar dira. Batetik, hizkuntza sintaktikoki buruzazken izatearen eta azentua hasierarantz egotearen artekoa. Bestetik, azentua hasieran egotearen eta postposizio eta atzizkiak izatearen artekoa. Gainera, eransten digute (Donegan & Stampe 1996, eskutorritik):

since phonological processes apply to rhythmic domains, and words with postposed markers in falling rhythm form rhythmic measures, while words with preposed markers in rising rhythm do not, postposed case markers become suffixes, while preposed ones do not. Thus we have case suffixes, not case prefixes.

Hizkuntzetan gertatzen dena zerbaitegatik gertatzen dela sinistea da Fonologia Naturalaren funtsa: alegia, hiztunek egiten dutena, erabiltzen dituzten formek, hizkuntzaren historian sortzen diren aukerek, eta abarrek beti izango dutela arrazoiren bat, beren zergatia, ez direla arbitrarioak, ez dagoe-la zentzugabekeriarik. Gu, hizkuntzalariok gara maiz nahiko ez dakigunak oraindik oso ezezagun zaigun giza lengoaiatz. Orain arteko lerroak, hizkuntzaren ezaugarriak zerrendatu edo bata bestearen ondoan jartzea baino harantzago iristeko, esplikazioen bidean abiatzeko, leiho txiki bat nondik ireki daitekeen erakusteko saio bat izan dira.

Bibliografia

- DONEGAN, PATRICIA, 1993, "Rhythm and vocalic drift in Munda and Mon-Khmer". *Linguistics of the Tibeto-Burman Area* 16:1, 1-43.
- & STAMPE, DAVID, 1979, "The study of natural phonology". In D. A. DINNSEN (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*. Bloomington: Indiana University Press, 126-173.
- & ———, 1983, "Rhythm and the holistic organization of language structure". In J. RICHARDSON *et al.* (arg.), *The Interplay of Phonology, Morphology, and Syntax*. Chicago: Chicago Linguistic Society, 337-353.
- & ———, 1996, "Rhythm in Holistic Typology". *Workshop on Typology and Naturalness* mintegian aurkeztutako hitzaldia, SLE 24, Klagenfurtuko Unibertsitatean, 1996ko irailaren 5ean.
- & ———, 2002, "South-East Asian features in the Munda languages: evidence from the analytic-to-synthetic drift of Munda". In P. CHEW (arg.), *Proceedings of the 28th Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society, Special Session on Tibeto-Burman and Southeast Asian Linguistics, in honor of Prof. James A. Matisoff*. Berkeley, CA: Berkeley Linguistics Society, 111-120.

- & ———, 2004, “Rhythm and the synthetic drift of Munda”. In R. SINGH (arg.), *Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*. Berlin & New York: Mouton de Gruyter, 3-36.
- MICHELENA, LUIS, 2011 [1977], *Fonética histórica vasca*. In J. A. LAKARRA & I. RUIZ ARZALLUZ (arg.), *Obras Completas VI (ASJUren Gehigarriak, 59)*. Donostia & Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- OÑEDERRA, MIREN LOURDES, 2013, “*Fonética histórica vasca*, hitz eraketaren morfonologia eta neutralizazio erraldoiak”. In R. GÓMEZ, J. GORROCHATEGUI, J. A. LAKARRA, & C. MOUNOLE (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra - III Congreso de la Cátedra Luis Michelena - 3rd Conference of the Luis Michelena Chair* (“Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak, 5). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 699-716.
- STAMPE, DAVID, 1968, “Yes, Virginia...”. Chicago Linguistic Society-ren 4. bilkuran irakurria eta, “The acquisition of phonological representation” azpiztitulua gehituta, University of California at San Diegon emandako hitzaldia.
- , 1969, “The acquisition of phonetic representation”. In R. I. BINNICK, A. DAVISON, G. M. GREEN, & J. L. MORGAN (arg.), *Papers from the Fifth Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society*. Chicago: Chicago Linguistic Society, 443-454. [Berrargit.: In B. C. LUST & C. FOLEY (arg.), 2003, *First Language Acquisition: Essential Readings*. Oxford: Blackwell, 307-315.]
- , 1979, *A Dissertation on Natural Phonology*. New York: Garland. [Stampe (1969) du hitzaurre]
- SPRING, CARI L.; FLYNN, MICHAEL & JOSEPH, BRIAN, 2000, “The successful introductory course: bridging the gap for the nonmajor”. *Language* 76:1, 110-122.